

ONARRIZKO MAILAKO MINTZAMEN-PROBA

- Proba binaka egingo da (edo hirunaka, ohiz kanpoko kasuetan).
- Azterketariak ez du prestatzeko denborarik izango proba egin baino lehenago.
- Azterketariak bere ariketa grabatzea nahi badu, azterketa-epaimahaiari esan beharko dio proba hasi baino lehenago. Nahikoa da bi azterketarietako batek grabatu nahi izatea, azterketa-epaimahaiak jarduera guztia (bi azterketariena) grabatu ahal izateko, beste azterketariak hala nahi ez badu ere.
- Azterketariak probaren formatuko alderdiren bat ulertzen ez badu, epaimahaiari eskatu beharko dio edozein zalantza argitu diezaion, ariketa hasi baino lehenago.
- Probak 3 ariketa izango ditu:

1. ariketa: AURKEZPENA ETA GALDERAK	ADIBIDEA
<ul style="list-style-type: none">- Bi azterketariak azterketa-epaimahaiaren eta beste kidearen aurrean aurkeztuko dute beren burua.- Ariketak bi zati izango ditu eta honako hau egin beharko du azterketariak:<ul style="list-style-type: none">- 1. Aurkezpenean, kontuan izango ditu eman zaion txarteleko giltza-hitzak.- 2. Epaimahaiak egindako galderak erantzun beharko ditu, aurkezpena osatzeko.	

2. ariketa: GALDE-ERANTZUNAK	ADIBIDEA
<ul style="list-style-type: none">- Azterketari bakoitzari hiru txartel emango zaizkio, eta, han, honako hauek adieraziko dira:<ul style="list-style-type: none">- Landuko den gaiaren izena.- Gaiari buruzko galderak egitean erabili beharko dituen giltza-hitzak. <p style="text-align: center;">Ariketa hasi baino lehenago, adibide bat erakutsiko da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Azterketariak, txandaka:<ul style="list-style-type: none">- beste azterketariari galderak egingo dizkiote.- beste azterketariak egindako galderei erantzun beharko diete.	

3. ariketa: ELKARRIZKETA ERANTZUNAK	ADIBIDEA
<ul style="list-style-type: none">- Azterketari bakoitzari txartel bat emango zaio, eta han:<ul style="list-style-type: none">- Bete behar den helburua zehaztuko da.- Ariketa egiteko elementu, datu eta egoera batzuk azalduko dira (azterketari bakoitzak desberdinak izango ditu).- Azterketariak, jasotako informaziotik abiatuta, saiatuko dira ados jartzen, emaitza bera lortzen, hitzordu bat ezartzen, plan txiki bat antolatzen..., baina ez da ariketaren nahitaezko helburua adostasuna lortzea.- Oharra: <i>azterketa-epaimahaiak proba amaitu dela esaten duenean, ez du inolaz ere probaren balioespena azaltzen; hau da, ariketarako denbora agortu dela besterik ez da adierazten.</i>	

PROBAREN BALIOESPENA.

- Proba honetan azterketariak lor dezakeen puntuaziorik altuena 20 puntu dira, eta honela banatuko dira puntuak:
 - 1. ariketa: 4 puntu
 - 2. ariketa: 8 puntu
 - 3. ariketa: 8 puntu
- Gainditzeko, gutxienez, **12 puntu** beharko dira.